

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko ekainaren 23ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Zerga premiazko araugintzako dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, ekainaren 23koa. Onestea zergei buruzko foru arau orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriak, COVID-19ekin loturikoak .

– **Erabakiak:**

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN
ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 269/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onespena ematea aldatzeari maiatzaren 29ko 264/2018 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen 2018ko ekitaldirako laguntzen deialdia, ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 270/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. 2020ko abenduaren 31ra arteko luzapena ematea Telefónica Móviles, SAU eta Telefónica de España, SAU enpresek osatzen duten ABEEri Arabako Lurralde Historikoko biztanleguneetan eta eremu sakabanatueta belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko diruz lagundutako proiektua gauzatzeko.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 271/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendaren aldaketari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 272/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onespena ematea 8/2020 konpromiso kreditua 2020. urtealditik 2021. urtealdira birbanatzeko espedienteari, 24.800,00 euroko zenbatekoaz, gastuen egoerako "Eguneratzea eta 1:5000 kartografia berria" partidan, hala eskatu baitu Ingurumen eta Hirigintza Sailak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 273/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onespena ematea 12/2020 konpromiso kreditua 2020. urtealditik 2021. urtealdira birbanatzeko espedienteari, 24.895,00 euroko zenbatekoaz, gastuen egoerako "1:500 kartografia berria eguneratzea" partidan, hala eskatu baitu Ingurumen eta Hirigintza Sailak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 274/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onestea "Fila 2" kultura elkarteari Villa Sofia jauregiaren erabilera lagatzea, 2020ko FesTVal jaialdia egiteko.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 275/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onestea kontratazio espedientea, prozedura irekiaren bidez, ertzain etxearen eraikinaren barnealdea eta inguratzailea eraberritzeko proiektuak idazteko, Laudioko suhiltzaile etxearen eraberritze integrala egiteko eta, ondoren, obra zuzentzeko.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 276/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onestea Arabako Bideak SA sozietatearen kapital handitzera joatea eta 100,00 euroko balio nominaleko 15.000 akzio harpidetzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 277/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Eguneratzea Bilbo-Logroño C-02 errepide bidezko bidaiarien erabilera orokorreko garraio erregularraren emakidaren bidaiarien tarifak.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 278/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onespena ematea hitzarmen bat sinatzeari Gasteizko Udalarekin eta "ASPANAFOA" Arabako Haur Minbiziduen Gurasoen Elkartearekin, minbizia duten adingabeen familiei laguntzeko programa bat gauzatzeko.